

IRAKASKUNTZA-GIDA

2019/20

Ikastegia

135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua

Ikastaroa

3. maila

IRAKASGAIA

25775 - Futbolaren eta Eskubaloien Oinarriak

ECTS kredituak:

9

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Irakasgai hau, talde kirolei dagokionez, Graduan zehar ikusten den azkena da. Talde kirolen elementu komunak jadanik ezagunak dira. Beraz, ikasgai honetan atal bakoitzean, Futbola eta Eskubaloia bereizten dituzten elementuak garatuko dira.

Irakasgaia Futbolaren eta Eskubaloien Oinarriak denez, edukiak orokorrak eta funtsezkoak izango dira, eta batez ere, kirol hauen hastapenera bideratuak.

Irakasgaiaren asmoa arautegi, oinarri tekniko-taktiko eta didaktikoen ikuspegi orokor bat ematea izango da, hezkuntza arloan erabili ahal izateko eta bestalde, Futbola eta eskubaloien ohiko praktikak gazteen formazioan duen ekarpena erakustea.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

ZEHARKAKO KONPETENTZIAK

G018: Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) JFKZren esparruan erabiltzen jakitea

G021 Lan arloko bikaintasun eta kalitate ohiturak garatzea(3.1; 3.2).

G018 landu eta ebaluatu. G021: landu, ebaluatu eta kalifikatu

IKASKUNTZA EMAITZAK-zeharkako gaitasun G021a- Ikasleak, bibliografia zientifikoan oinarrituz, irakaskuntza aldi ezberdinetan aplikatzeko unitate didaktikoak diseinatzeko dituzte.

BERARIAZKO KONPETENTZIAK

1.Futbolaren eta Eskubaloien oinarrizko egiturak ezagutu, ulertu eta lehiaketa jarduera zehazten duen eskakizunak ezagutu, ikaste-jarduerak eta hobekuntza-jarduerak diseinatzeko.

IKASKUNTZA EMAITZAK 1.- Futbola eta eskubaloien oinarrizko egiturak eta egoerak dagokion kirol arloan aplikatzen dituzte, bere jakinduria idatzizko frogen eta behaketa txostenen bidez adieraziz.

2.Ikasleak bizi izango duen egoeretan oinarriturik, Futbolaren eta Eskubaloien jarduera printzipioak eta egite modeloak ikasi.

IKASKUNTZA EMAITZAK 2.- Futbola eta eskubaloien jarduera printzipioak eta egite modeloak era praktikoko batean inplementatzen dituzte, frogaren objektibo baten bidez baloratuz.

3. Egite modeloak eta printzipio metodologikoak aztertuz, aldi edota eremu ezberdinetan aplikatu ahal izateko ikaskuntza-irakaskuntza prozesua diseinatu eta parte hartu.

IKASKUNTZA EMAITZAK 3.- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua identifikatu eta parte hartzen du, berezko metodologia printzipioak eta egitura aztertuz; bere ezagupenak proiektu baten bidez erakutziz -informeak eginez-.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

FUTBOLAREN MODULOAK

GAI MULTZOA I: futbolaren barne logika

GAIA 1. Futbolaren jatorria gaur egunerarte

GAIA 2. Futbolaren barne logika

GAI MULTZOA II: eskuhartzearen prozesua futbolean

GAIA 3. Jokoa oinarritutako irakaskuntza estrategiak (TGfU)

GAIA 4. Jokalaria futbol eskuhartze prozesuaren barne

GAIA 5. Ebaluazioa eskuhartzea prozesuan

ESKUBALOIAREN MODULOAK

Gaia 1.- Eskubaloia: gauegungo testuingurua

Gaia 2.- Eskubaloien barne logika

Gaia 3.- Analisi eta tratamendu didaktikoa

1x1 etik: Eraso eta defentsak; 7x7 ra: Talde jokoen hasiera.

Gaia 4.- Aplikazio-eremuak

METODOLOGIA

FUTBOLAREN ETA ESKUBALOIAREN MODULOAK

Ikaskuntza-Irakaskuntza prozesuan metodologia aktiboak eta partehartzaileak, eta informazioaren eta teknologiaren erabildera sustatuko dira irakaskuntza aktibo eta dinamikoa bultzatuz. Jardueren artean, banakako eta taldeko lanak, eztabaida taldeak, aurkezpen praktikoak eta debateak egongo dira.

Kurrikulumarekin bat egiteko metodologiak eta ebaluazioak lotura handia izango dute. Modu horretan ikasturtean zehar, ikasleek autoebaluazioak, elkarren arteko ebaluazioak eta taldeetan oinarritutako ebaluazioak burutuko dituzte. Kideekin eginiko ebaluazioak ez dira bakarrik froga espezifiko batzutan egingo, kideen aurkezpenak aditzen eta ekarpenak egiten dituztenean bakoitzean ere bai. Ikasleak kideen ebaluazio eginkizunetan inplikatzeari egokia da ikasleari edukien ulermen eta erabilpen hobeago batera iristeko lagungarri den zerbait bezala bideratzen denean.

Ebaluazio sistema jarraian, aurrez aurreko saioetan eginkizun eta froga ezberdinak burutuko dira. Hauek ikasleen formakuntzarako eta kasu batzutan ikasgaiko bukaerako notarako baliogarriak izango dira. Ez etortzeak irakasleak eta ikasleak adostutako eginkizun eta jarduerekin konpentsatuko dira.

Horrez gain, ikasgai honen ezaugarriak direla eta ezinbestekoa da gelako praktikatan parte hartzea behar den jarrera, interesa eta begirunea beste partehartzaileekiko izanez.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	30		40						20
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	45		60						30

Legenda:

M: Magistrala

GL: Laborategiko p.

TA: Tailerra

S: Mintegia

GO: Ordenagailuko p.

TI: Tailer Ind.

GA: Gelako p.

GCL: P. klinikoak

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 10
- Test motatako proba % 10
- Ahozko defentsa % 10
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 10
- Banakako lanak % 10
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 10
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 10
- Portfolioa % 10
- Erabilitako sistemak talde bakoitzeko ikasle kopurua eta ikasurtearen dinamikaren arabera %20 aldatu daitezke. % 20

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Egongo diren ebaluazio sistemak ebaluazio jarraia eta azken ebaluazioa izango dira. Ikasleek bederatzi asteko epea izango dute, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa hasten denetik kontatzen hasita, irakasgaiaren ardura duen irakasleari posta elektronikoen bidez egindako aukeraketa jakinarazteko; modulo bakoitzean adierazi beharko duzue (Futbolean zein Eskubaloian). Egin ezean, azken ebaluazio sisteman izango zarete.

a) EBALUAZIO SISTEMA JARRAIA

Edukien banaketa zehatza, lanen entregatze data eta frogen datak irakasleak ikasleekin kontsultatuz zehaztuko ditu aurreneko asteetan.

Futboleko zatia:

Froga eta eginkizunak (notaren %koa)

Partehartzea (%5): saioan parte hartzea

1a eginkizuna (%5): Futbolaren arautegiko arau baten azalpena klasean.

1b eginkizuna (%3): BL ezberdineko fitxa bat sortzea (VII 1b eranskina ikusi)

1c FROGA (%10): Idatzizko azterketa. Futbolaren araudia eta barne logika.

2a eginkizuna (%10): Futbol talde baten aste bateko entrenamenduaren diagnostikoa (orria + excela).

2b FROGA (%10): Entrenamendu saio baten diagnostikoa ordenagailuzko aplikazio batekin.

- 3a eginkizuna (%8): BL moldatua duen 4 fitxa egitea (VII 3a eranskina ikusi).
- 3b eginkizuna (%4): Eskakizunen lana.
- 3c FROGA (%8): Eginkizun baten aurkezpena
- 4a eginkizuna (%3): TGfU 1 lana
- 4b eginkizuna (%9): Hezkuntza etapa bakoitzerako 3 saio praktiko sortzea (ikusi VII 4b eranskina)
- 4c FROGA (%10): Hezkuntzako saio praktiko baten aurkezpena
- 5a eginkizuna (%3): TGfU 2 lana, amankomunean jarri
- 5b FROGA (%6): Taldekako zein banakako jokabidea ebaluatzeko txantilo bat sortzea
- 5c FROGA (%6): Behaketa praktika bat egitea

Eskubaloiko zatia:

- Lankidetzan oinarritutako talde-egitasmoa (PBL) gauzatzea (ariketak, aurkezpenak, txostenaren eta defentsaren ebaluazioa): notaren %40a. Notaren zati bat ikaskideen arteko elkar-ebaluaziotik etor daiteke.
- Behaketa bidezko analisia. Notaren %20a.
- KIROL PRAKTIKARI buruzko frogak. Banakakoa, notaren %20a
- Edukien ezagutza- eta ulermen-azterketa, test moduko galderak, galdera labur, eta azalpenezko eta argudiatzezko galderetan oinarritu daitekeena. Banakakoa, notaren %20a

Ikasgai honen ezaugarriak direla eta, ezinbestekoa da gelako praktikan parte hartzea behar den jarrera, interesa eta begirunea izanez.

AZKEN NOTA

Azken nota egiteko, Futbola eta Eskubaloien atalen artean batz bestekoa egingo da kirol modalitate bakoitzean gutxienezko 5 bat lortu bada.

b) AZKEN AZTERKETAREN BIDEZKO EBALUAZIOA

Azken ebaluazioak aukera ematen du proba baten bitartez ikaskuntzaren emaitzak ebaluatzeko. Proba hori irakasgaiari edo gaiari dagokion notaren % 100 biltzen du.

Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat posta elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa hasten denetik kontatzen hasita.

Proba azterketa edo jardura batek edo gehiagok osatuko dute. Proba edo jardura guztiak derrigorrezkoak dira, hau da, egin beharrekoak eta gutxienezko 5/10 nota lortu behar da frogak edo jardura bakoitzean, irakasgaia bera gainditzeko.

Edukien banaketa zehatza, lanen entregatze data eta frogen data irakasleak ikasleekin kontsultatuz zehaztuko ditu.

- IDATZIZKO azterketa: edukien ezagutza eta ulermenean eta irakasgaiaren gaitasunetan oinarrituko da. Proba test moduko galderez, galdera laburrez eta azalpen- eta argudio-galderez gain, baliteke probaren zati bat ordenagailu gelan egin behar izatea, ariketa praktiko bezala edota AHOZ defendatu behar izatea.

- KIROL PRAKTIKA bat, irakasgaiaren eduki-konpententzi guztiei buruzkoa.

- Ikasleen gidan deskribaturiko bakarkako zein taldekako lana/k. Ikasturtean zehar egingo da, eta azterketa deialdirako ezarritako data ofizialean entregatu beharko da.

Proba hau ez da bigarren aukera ebaluazio mistoa osorik egin duten ikasleentzat.

IKASGAIAREN NOTA FINALA, BI MODULOEN NOTEN BITARTEZ OSATUTAKOA

Azken nota egiteko, Futbola eta Eskubaloien atalen artean batz bestekoa egingo da kirol modalitate bakoitzean bai idatzizko frogan bai praktikakoan gutxienezko 5 bat lortu bada eta kirol bakoitzean orokorrean gutxienez 4/10 izanez. Irakasgaia gainditua izango da, azken notan (atletismo-igeriketaren arteko batz bestekoan) gutxienez 5/10 bada.

PROZEDURA ETA EPEAK DEIALDIARI UKO EGITEKO

1.– Deialdiari uko egiten dioten ikasleek «aurkezteke» kalifikazioa jasoko dute.

2.– Etengabeko ebaluazioaren kasuan, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari.

3.– Azken ebaluazioaren kasuan, azte

EZOHKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EBALUAZIO SISTEMA JARRAITUA

- Deialdi hontan, 1.go deialdian gainditurik gabeko atalak ebaluatuko dira.
- Azken nota egiteko, Futbola eta Eskubaloiairen atalen artean bataz bestekoa egingo da kirol modalitate bakoitzean gutxienezko 5 bat lortu bada.

AZKEN AZTERKETAREN BIDEZKO EBALUAZIOA

Etengabeko ebaluazio eduki ezin duten ikasleek badute irakasgai osoa ebaluatuko duen azken proba batera aurkeztea.

- IDATZIZKO azterketa: edukien ezagutza eta ulermenean eta irakasgaiaren gaitasunetan oinarrituko da. Proba test moduko galderez, galdera laburrez eta azalpen- eta argudio-galderez gain , baliteke probaren zati bat ordenagailu gelan egin behar izatea, ariketa praktiko bezala edota AHOZ defendatu behar izatea.
- KIROLO PRAKTIKA bat, ikasgaiaren eduki-konpententzi guztiei buruzkoa.
- Irakaskuntza gidan azaltzen diren eta ebaluazio jarrairako erabilitako banakako lan guztiak egin beharko dira, hala ere irakasleak ikasle bakoitzaren arabera moldatu ahal izango ditu.

IKASGAIAREN NOTA FINALA, BI MODULOAK BATERATUA

Azken nota egiteko, Futbola eta Eskubaloiairen atalen artean bataz bestekoa egingo da kirol modalitate bakoitzean gutxienezko 5 bat lortu bada.

UKO EGITEKO PROZEDURA ETA EPEAK

- Azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.
- Deialdiari uko egiten dioten ikasleek «aurkezteke» kalifikazioa jasoko dute.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasgaiaren E-gela eta erreferentziaturiko bibliografia eta aplikazio ofimatikoak.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

FUTBOLaren MODULOA

Gai Multzoa 1

Castellano, J. (2005). Confección de tareas de entrenamiento en fútbol. El Entrenador Español, 107.

(<http://www.comiteentrenadoresfef.com>, consulta: 1 de septiembre de 2006)

Etxeazarra, I. (2014). Propuestas para el diagnóstico y evaluación de las tareas de entrenamiento en el fútbol de formación". Jornadas de actualización organizadas por el Comité Cántabro de Entrenadores y la Federación Cántabra de fútbol. Santander, 2 y 3 de mayo de 2014.

Parlebas, P. (2001). Juegos, deporte y sociedad. Léxico de praxiología motriz. Barcelona: Paidotribo.

Gai Multzoa 2

Anguera, M. T., Blanco, A., Losada, J. L. y Hernández-Mendo, A. (2000). La metodología observacional en el deporte:

conceptos básicos. Lecturas: EF y Deportes. Revista Digital, 24, [descargado el 1 de abril de 2017,

<http://www.efdeportes.com/efd24b/obs.htm>].

Corbeau, J. (1990). Fútbol: "De la escuela... a las asociaciones deportivas". Lérida: Agonos.

Fenner, J. S. J., Iga, J. & Unnithan, V. (2016): The evaluation of small-sided games as a talent identification tool in highly trained prepubertal soccer players, Journal of Sports Sciences, 34(20), 1983-1990.

Serra, J., García, L.M. y Sánchez-Mora, D. (2011). El juego modificado, recurso metodológico en el fútbol de iniciación.

Retos: Nuevas tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación, 20, 37-42.

http://www.retos.org/numero_20/RETOS%2020%2037-42.pdf.

ESKUBALOIAREN MODULOA

Antón, J. (1990). Balonmano. Fundamentos y etapas del aprendizaje. Ed. Gymnos. Madrid.

Antúnez, A. y Ureña, N. (2002). Guía didáctica del balonmano. Murcia: DM librero editor.

Bárcenas, D.; Román, J.D. (1991): Balonmano: Técnica y Metodología. Barcelona: FEBM.

Falkwoski, M. y Enríquez, E. (1982). Estudio monográfico del jugador de campo. Madrid: Esteban Sanz.

Falkwoski, M. y Enríquez, E. (1987). Metodología lineal. El argumento de una posibilidad. Madrid: Esteban Sanz.

Lasierra, G.; Ponz, J. M. y De Andrés, F. (1992): 1013 ejercicios y juegos aplicados al Balonmano. Vol I. Fundamentos y ejercicios individuales. Barcelona: Paidotribo.

Lasierra, G.; Ponz, J. M. y De Andrés, F. (1992): 1013 ejercicios y juegos aplicados al Balonmano. Vol II. Sistemas de juego y entrenamiento del portero. Barcelona: Paidotribo.

LLorente Pastor, B. y Diez Maestro, E. (1996). Eskubaloia Lehen Hezkuntzan. Vitoria-Gasteiz: Shee-Ivef.

Oliver Coronado, J.F. y Sosa González, P. (Coord.) (2009)Guía de trabajo para la formación en balonmano. Ámbitos físico, motor y táctico grupal ofensivo. Madrid: Real Federación Española de Balonmano.

Oliver, F. y Sosa, P. (1996). La actividad física y deportiva extraescolar en los centros educativos. Balonmano. Madrid: Consejo Superior de Deporte.

Real Federación Española de Balonmano (2010): Reglas de juego. Madrid.

(http://www.rfebmn.net/upload/descargas/RFEBM%20Reglamento_SALA.pdf, consulta: 15 de marzo de 2013)

VV.AA. (1992). Balonmano. Madrid: COE.

Gehiago sakontzeko bibliografia

FUTBOLAREN MODULO A

Martínez-Santos, R. (2014). Juegos, reglas y azar (1ª parte). Sobre la naturaleza de los juegos deportivos. Retos, 26, 143-148.

Martínez-Santos, R. (2015). Juegos, reglas y azar (2ª parte). Sobre la naturaleza de los juegos deportivos. Retos, 26, 143-148.

Gréhaigne, J. F. (2001). La organización del juego en el fútbol. Barcelona: Inde.

Marqués, D. & Martínez-Santos, R., (2015). Evaluación de una herramienta observacional del código praxémico del fútbol. Cuadernos de Psicología del Deporte, 15(1), 223-232.

ESKUBALOIAREN MODULO A

Antón, J. (2000). Balonmano. Perfeccionamiento e investigación. Barcelona: INDE

Antón, J. (2002). Balonmano. Táctica grupal defensiva. Madrid: Gymnos.

Bayer, C. (1986). Técnica de balonmano. La formación del jugador. Barcelona: Hispano Europea.

Bayer, C. (1997). La enseñanza de los juegos deportivos colectivos. Barcelona: Hispano Europea.

Blázquez, D. (1998). La iniciación deportiva y el deporte escolar. Barcelona: INDE.

Devís, J. (1992). Bases para una propuesta de cambio en la enseñanza de los juegos deportivos. En Devís, J. y Peiró, C. Nuevas perspectivas curriculares en la educación física: la salud y los juegos modificados. Barcelona: INDE.

García Herrero, J. A. (2003). Entrenamiento en balonmano. Bases para la construcción de un proyecto de formación defensiva. Barcelona: A&M Gráfic

Lasierra, G.; Lavega, P. (1993). 1015 juegos y formas jugadas de iniciación a los deportes de equipo. Barcelona: Paidotribo.

LLorente Pastor, B. y Diez Maestro, E. (1996).Eskubaloia Lehen Hezkuntzan. Vitoria-Gasteiz : Shee-Ivef.

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

FUTBOLAREN MODULO A

www.comiteentrenadoresrfef.com.

www.efdeportes.com

www.fifa.com

www.expertfootball.com/es/multitudinario.php

<http://www.futbolformativo.es/>

ESKUBALOIAREN MODULO A

www.aebm.com. Asociación entrenadores de balonmano.

www.rfebmn.com. Real federación española de balonmano.

www.ajbm.com. Asociación jugadores de balonmano.

www.geocites.com/arbitros_balonmano. Asociación de Árbitros de balonmano.

www.asobal.com. Asociación de clubes de Balonmano (ASOBAL).

www.eurohandball.com. Federación Europea de Balonmano.

www.ihf.info. Federación Internacional de Balonmano.

www.comiteentrenadoresrfef.com.

www.efdeportes.com

www.fifa.com

www.expertfootball.com/es/multitudinario.php

<http://www.futbolformativo.es/>

OHARRAK

Modulo bakoitzaren hasieran ikaslegoa konpetentziak, edukiak eta ebaluazioaren inguruko informazio zehatzago eta data duna jasoko dute.